

TTANTTAKA TALDEAK UMEKERIAK ANTZEZLANA ESTREINATUKO DU OSTIRALEAN TOLOSAN

Umekeria zorrotzak

Raymond Cousse-ren testu bat egokituta osatu du Ttanttakak antzezlan berria. Mireia Gabilondok zuzendu du 'Umekeria' eta Jose Ramon Soroiz da protagonista, eta gaztelerazko bertsioan Fernando Bernuesek eta Enrique Diaz de Radak ere jardun dute.

Joxi Ubeda / Donostia

BAKARRIZKETA da Ttanttaka taldearen antzezlan berria. Nekazaritza giroan bizi den haur batek gogoratu egiten ditu bere bizitza hunkitu duten hamar une. Inozotasunez, gaiztakeriaz, samurtasunez edo malenkoniaz, inguruko tokiak eta pertsonak etortzen zaizkio burura: irakaslea, apaiza, Marcelo laguna eta bere heriotza, Marceloren arreba, harakina... Oroimenen bidez, haurrak bizitzako hainbat elementu ezagutzen ditu: sexua, heriotza, erlijioa, hezkuntza...

Haurraren rola pertsona heldu batek egiten duenez, narratzaile-protagonista den haurraren eta antzezle den helduaren artean distantzia bat dago. Haurraren logika zorrotzak helduen bizitzaren konbentzionalismoak ironiaz aztertzen ditu. Emaizta, umorea nagusi duen komedia da.

Gogorra da bizitzen ikastea • Raymond Coussek idatzitako *Enfantillages* testuaren bi bertsio egin ditu Ttanttaka antzerki taldeak. *Umekeria* da euskarazkoa, eta Mireia Gabilondok zuzenduta Jose Ramon Soroiz aktoreak dihardu horretan. Itzultzailea Jose Luis Agote, eta Pepi Soroiz arduratu da jantziez.

Gastelerazko bertsioa *Chiquilladas* da. Fernando Bernuesen gidaritzapean, Enrique Diaz de Radak egiten du haurraren rola. Itzultzailea Guillem-Jordi Graells izan da, eta jantziez Nati Ortiz de Zarate arduratu da. Bi bertsioetan Jon Berrondo arduratu da eszenografiaraz, Patxi Ariztimuño argiez, Cristina Diaz de Rada da zuzendari laguntzailea, Jose Joaquín Forcada musika aholkularia, eta musika Pascal Comeladek sortutakoa da.

Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues zuzendariak, eta Jose Ramon Soroiz eta Enrique Diaz de Rada aktoreak atzo bildu ziren Donostian antzezlanaren berri emateko. Fernando Bernues zuzendariak prentsaurrekoaren hasieran aipatu zuenez: «Testuaren musikaltasuna dela eta hizkuntza oso ondo menderatu behar da eta, horrela, euskarazko eta gastelerazko bertsioak egiteko bi antzezle aukeratu genituen».

Testua oso interesgarria iruditu zitzaion eta obra egiteko gai ziren bi aktoreak buruan zituzten: Jose Ramon Soroiz eta Enrique Diaz de Rada. Fernando Bernuesek gehitu zuenez, obra berria istorio bat da, ez hamar



Jose Ramon Soroiz aktorea, Mireia Gabilondo zuzendaria, Enrique Diaz de Rada aktorea eta Fernando Bernues zuzendaria atzoko aurkezpenean.

EDURNE KOCH

Cousse, idazle autodidakta

JATORRI bretoia duen Raymond Cousse idazlea Saint-Germain-en-Laye herrian jaio zen 1942an. Familia xumekoa, bere kasa hasi zen idazten. Kirolzalea, 1964an Parisgo Liburutegi nazionalen suhiltzaile ari zenean piztu zitzaion kulturarekiko grina. Becketten idazlanen eta zentzugabeko antzerkiaren eraginez idazteari ekin zion. 1967an amaitu zuen *Enfantillages* eleberriaren lehen bertsioa, eta 1983an antzerkirako moldatu zuen.

1969an *Bi urdaiazpikoen estrategia* eta *Le Festin du Loup* idatzi, eta lehenengo testua antzezlan gisa taularatu zen 1974an Alemanian, Holandan eta EEBBetan. Antzezlan 18 hizkuntza baino gehiagotan itzulia izan da, eta 27 herritan antzeztua. Iazko antzerki denboraldian, Juan Echanove protagonista zuen *El Cerdo* obrak oihartzun handia izan zuen.

1984an *Enfantillages* Avignongo Jaialdian aurkeztu zutenetik hainbat bertsio aurkeztu izan dira herrialde ezberdinetan. Raymond Coussek bere buruaz beste egin zuen duela sei urte.

esketch. «Istoriok gogora ekartzen digu bizitzen ikastea, gauzen logika jakitea, gogorra izan zela guretzat». Diaz de Radaren aburuz, obra zirkularra da, antzezlanean zehar hainbat gai agertzen dira, errepikatuta, «eta soneto bat bezala da, bukaeran elkartzen baitira elementu tematiko guztiak».

Orain arte egindako emanaldietan ikusleek ondo pasatu dutela komentatu digu Bernuesek, «monologo batean ikusleak errazago agertzen du antzezlanaren aldeko edo aurkako jarraia, eta aktorearentzat ere gogorra izaten da, orduan erakutsi behar dute ausardia, zezenaren aurrean bakarrik daudelako». Erronka handia da aktorearen

tzat, «nahiz eta telebistan eta antzerkian asko ibilitakoa izan».

Jose Ramon Soroizek denbora behar izan zuen obran parte hartuko-ote zuen erabakitzeke, «Fernandok aspaldi esan zidan, baina emanaldi osoa pertsona berak egitea gogorra egiten zitzaidan». Soroizek ez du gaztelerazko bertsioa ikusi oraindik, «eta nahiago dut ez ikusi, ez nahasteko nire rolaekin. Emanaldiak behar baitituz indarra, gorputza hartzeko».

Enrique Diaz de Rada aktoreak adierazi zuenez, bi aktore ezberdinak, lan egiteko modu ezberdinak, «teknika ezberdinekoak gara, eta Jose Ramonek, adibidez, oso ondo ezagutzen du euskal idiosinkrasia. Horrela, bi giro ezberdin daude bi muntaietan». Ildo beretik, Mireia Gabilondok azpimarratu bezala, «testuan gauza batzuk oso markatuta daude, baina hortik kanpo aktore bakoitzak bere lana egin du». Dena den, aktore bakoitzak

beste bertsioa ikus dezakeenez, beste aktorearen hainbat elementu ere beregana dezake.

Ttanttakak bere ibilbidean zehar jenero ezberdinak landu izan ditu, eta ikuskizun berria prestatzeko garaian bakarrizketa hautatu du. Mireia Gabilondok lehen aldiz jardun du zuzendari gisa, eta obra hau Enrique Diaz de Radak azken urteetan egin duen lehen komedia da. Ttanttakak muntaia berriaren gaztelerazko hiru emanaldi eginak ditu honezkero —Getxoko antzerki jaialdian, udaberriari Urrietako Sarobe zentroan programatzaileren aurrean, eta iragan astean Elorrión—, eta ostiral honetan bi bertsioak antzeztuko ditu Tolosako Leidor aretoan: 20.30etan gaztelerazkoa eta 22.30etan euskarazkoa. *Umekeria* Donostian ikusi ahal izango da abenduaren 21ean, eta urte hasieran bi bertsioak ikusi ahal izango dira Donostian bertan. X

Bederen 1 taldeak bira egingo du Alacant eta Galizian

■ 'Errenta' antzezlan eskainiko du hainbat hiritan

Erredakzioa / Donostia

DONOSTIAKO Bederen 1 antzerki taldea gaur abiatuko da Alacant aldera bertan hainbat emanaldi hitzartuta dituztela-eta. Lau hiritako antzokietan ariko dira *Errenta* antzezlan eskaintzen. Ramon Agirrek idatzirik antzezlan-sari-tuaren gaztelerazko bertsioa jokatuko du Bederen lek.

Ez da lehen aldiz Bederen lek Mediterraneo inguruetan antzezten duena. Aurten bertan ere izana da inguru horietan eta hain zuzen *Errenta* antzezlanak izan arrakastaren ondorio da saio gehiago emateko eskakizuna. Lehenago bertan ikusi dutenek gustuko izan eta etorri da berriro ere bira egiteko aukera.

Datorren astean handik bueltan, Lazkaon azkena duten 'Eztei gaua' lana eskainiko dute (hilaren 16an); eta gero, 17an eta 19an, Tafallan eta Iruñean 'Errenta' lanaren gaztelerazko bertsioa. Euskal Herriatik kanpoko emanaldiak ez dira baina Alcantekoekin bukatzen, ondoren Galiziarabiatuko baitira. X

Jose Antonio Ferminen marrazkiak ikusgai dira Gipuzkoako Artisten Elkarte

Erredakzioa / Donostia

Gipuzkoako Artisten Elkartearen egoitzan Jose Antonio Fermin *Gorosabel*-en marrazkiak ikusgai daude atzodanik. Hilaren amaierara arte Ferminen *ezabatuz pintatzea* teknikaz baliatuta eginiko lanak aurkeztu gura ditu. Oro har, zuri-beltzean egiten du lan; hondo beltzaren gainean eta ezabatuz joanez, alde aurretik bururatutako irudiak sortzen ditu.

Erakusketaz gain grabatu ikastaro bat ere jarri du martxan elkarteak. Carmen Sevilla artistak zuzenduriko ikastaro hau hilaren amaieran hasiko da eta nahi duenak har dezake parte. X

HAUR PROGRAMAZIOA EUSKARAZ

AITA SALESTARREN IKASTETXEKO ARETOAN

Azaroak 8
arratsaldeko 5,30etan
Bihar Txotxongilo taldea
"URTUBIKO GAZTELUA"

AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA
IRUÑEKO UDALA

Fernando Bernues: «Istoriok gogora ekartzen digu bizitzen ikastea, gauzen logika jakitea, gogorra izan zela guretzat»